




TXIZAGURA



LIBURUAREN FITXA

Émile Jadoul. *Txizagura*, Tarttalo, 2012

AURKEZPENEA

Gaueko isiltasunaz eta lo aldiaz gozatzea ez dira askotan uztartzen, haurrak txikiak direnean. Digestio kaskarrak, minak eta ezin egonak medio, lo oso gutxi egiten dute guraso gehienek, jaio eta lehenengo hilabeteetan. Gorputzez indartzen direnean eta autonomo xamarrek bilakatzen direnean, ordea, beldurrak sortzen dira eta amets gaiztoak: mamuak, otsoa, sakamantekasa... Haurrak esnatzen dira ia gauero aitzaki desberdinekin: norbait dagoelako ohe azpian, edota ez dutelako etxeko korridore luze eta iluna bakarrik zeharkatu nahi komunera joateko...

Borondate on guztia izanda ere, gurasoak aspertu egiten dira, ez baitago formula magikorik eta, gainera, nekatuta bizi direlako. Haurrarentzat ere ez da erraza autonomo bilakatzea eta beldurrak uxaturik arrazoiez jokatzeko.

KONTAKETA

- Liburu zoragarri honek azaltzen digu gaueko ibilaldi horien azpian azaltzen den gatazka, txizagura aitzakia hartuta. Gauean zuek bakarrik joaten al zarete komunera?
- Orriz orri, gaueko giroa azpimarratu: isiltasuna, hotza, iluntasuna, beldurra... irakurketa edota kontaketa haren.
- Orriz orri behatu pertsonaien gorputz eta aurpegiaren espresioak, haien emozioak.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Liburua ikusi eta gozatu ondoren, komentatu zer gertatzen zaien gurasoei, zer Lontxori.
- Zergatik esnatzen dira? Amesgaiztoengatik? Txizaguraz?
- Gauean zein joaten da gurasoen ohera? Zer esaten du aitak, zer amak?
- Denei ihes egiten digu txizak behin edo behin: Niri azkeneko aldian, 18 urte nituela nire lagun baten gurasoen etxean... Zuri?

PROPOSAMENA ZEHAZTEN

- Marraztu zure aurpegia gauez beldur zarenean.
- Marraztu zure gurasoen aurpegia gauez esnatzen dituzunean.
- Marraztu otsoaren aurpegia.